

NORBAIT JOAN DA
Amaia Rodriguez Badiola
Zumarraga

Zu joan zinenetik
dena da ezberdina.
Gabon Zahar egunean
notatzen dut ezina.
Zure kuadroak ukitzen,
negarrez, jakina.
Zurekin egon nahian
zeruan edo laino azpian.

*Txikiena naiz,
txikiena beti.
Urteak pasa,
urteak geldi.
Norbait joan,
norbait etorri.*

Zure kuadroak nire gelan zintzilik,
baina zu jadanik ez zaude hemendik.
Beti piropoak botatzen,
gainera,
berdinak ginela esaten zidaten.

*Txikiena naiz,
txikiena beti.
Urteak pasa,
urteak geldi.
Zure oroitzapenak
nire barnean darrai.*

Zure airea usaindu,
zure pintzelak ukitu.
Zu ez zaude hemen,
baina goitik esaten didazu
“zure alboan nauzu”